

NEGUKO BARNE TXAPELKETA

SASKIBALLOIA 3X3

- Guztiek guztien aurka jokatuko dute, bi itzulitan.
- Berdinketa balego, finala partidu bakarrera jokatuko da, eta irabazlea txapelketako irabazlea izango da.
- Baloiak campuseko harreran eskatu behar dira; amaitzean, bertara itzuli.
- Partiduko irabazlearen ardura izango da emaitza kirol zerbitzura idaztea.

SARIAK:

- Bi sari irabaziko dira:
 1. Mondragon Unibertsitateko kirol txapelketan jokatzeo aukera (otsailean).
 2. Sasaki 3x3 txapelketako talde irabazlearentzat 20€/partaideko saria izango da. Saria ondorengo eratan jasotzeko aukera egongo delarik: edo Forum Sport kirol dendetan erosketa balea edo afari eder bat.
 - Saria ez da inoiz dirutan emango.
 - Sariak pertsonalak eta trukaezinak dira beste pertsonekin.
 - Txapelketako izenemate-orrian agertzen diren pertsonak bakarrik jaso ahal izango dute saria (5 pertsona gehienez).
 - Talde kirolean, partaide guztiek sari hautaketa berdina egin beharko dute.

ARAUTEGIA

1. Espazioa: Saski bakar batean jokatuko da.
2. Taldearen osaketa: Taldeak gutxienez hiru eta gehienez bost jokalariz osatuta egongo dira.
3. Aldaketak: Momentu oro taldeko hiru jokalarik jokatuko dute. Nahi beste aldaketa egin daitezke, beti ere, jokia etenda dagoenean.
4. Txapelketaren puntuazioa: Irabazitako partidak puntu bat balioko du eta galdutakoak zero. Ez da berdinketarik egongo.
5. Partiduaren puntuazioa: Saskiratze bakoitzak puntu bat balioko du, baldin eta hiruko marratik haratago saskiratutakoa ez bada. Kasu honetan bi puntu balioko ditu.
6. Partiduaren irabazlea: Partidua irabazitzat emateko 15 puntuko bi partidua irabazi beharko dira. Talde bakoitzak partidua bana irabaziko balitu, hirugarren partidua 11 tantora jokatuko litzateke.
7. Partiduaren hasiera: Talde bakoitzak jaurtiketa libre bana botako du, eta saskiratzen duen lehenengo taldeak izango du baloiaren lehenengo jabetza.
8. Partiduaren dinamika:
 - 8.1. Baloia jabetza aldaketa ematen denean (defentsako errebote edo lapurtutako baloi bakoitzaren ondoren) baloia hiruko marra baino haratago irten beharko da. Aipatutako marratik atzera ateratzen ez bada eta saskiratzea lortzen bada, sartutako puntuak eta baloiaren jabetza aurkariarentzako izango dira.
 - 8.2. Saskiratze bakoitzaren ondoren baloia jabetzaz aldatuko da. Jokoa martxan jartzeko defentsan dagoen taldeak erasotzaileari pasa beharko dio baloia hiruko marratik atzera.
 - 8.3. Baloia zelaitik kanpora irteten denean alboko marratik jarriko da jokoa.
 - 8.4. Bi jokalarik aldi berean hartzen badute baloia "borroka" izango da eta defenditzen dabilen taldearentzako izango da jabetza.
9. Epailera: Ez da epailerik egongo, beraz, faltak norberak adieraziko ditu.
10. Faltak: Faltak beti alboko marratik aterako dira. Talde batek bost falta egiten dituenean jaurtiketa libre batekin zigortuko da. Aurkariak jaurtiketa libre sartu edo ez, jabetza aldatuko da.
11. Emaitza: Partiduaren emaitza talde irabazleak kirol zerbitzura emailez bidaliko du, baloiak Enpresagintzako harrerara itzultzearekin batera.